

TXAKURRA INSKRIBATZEA ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ANIMALIEN ERREGISTROAN

Izapide hori egiteko, beharrezkoa izango da aldez aurretik arriskutsuak izan daitezkeen txakurren lizentzia lortzea eta ohiko albaitariarengana joatea mikrotxipa ezartzeko.

Non eskatzen da lizentzia?

Eskaera orria Udaltzaingoaren bulegoetan eta Herritarrei Arreta emateko Zerbitzuaren bulegoetan jaso daiteke.

Eskaera-inprimakia eta aurkeztu beharreko dokumentazioa Herritarrei Arreta Emateko Zerbitzuaren bulegoetan erregistratzen dira. Behin erregistroa eginda, Udaltzaingoa eskatzailearekin harremanetan jarriko da, izapidea eginda dagoela adierazteko.

Bi bulegoak hemen daude: **Barrenkale 17, 48200 – Durango**

Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan aurkeztu beharreko dokumentazioa (HAZ)

- Txakurra, arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroan inskribatzeko **eskabide-orria**.
- Txakurraren koloretako argazki bat, gorputz osokoa.
- Animaliaaren osasun-kartilla.
- Albaitariaren ziurtagiria, duela gutxi egina, animaliaaren osasun-egoera eta bereziki arriskutsua den gaixotasunik edo nahasmendurik ez dagoela egiaztatzen duena.
- Txakur-espeziearen erregistro-orria. Eskaera honekin batera entregatzen ez bada, lizentzia lortu eta hurrengo 15 egunetan entregatu beharko da. Alta ematea Bizkaiko Foru Aldundiko Txakurren Erroldan (albaitaritza-zentroak emana).
- Erantzukizun zibileko aseguruaren poliza, gutxienez 120.000 euroko estaldurarekin, animaliak eragindako kalteen ondoriozko erantzukizunagatik, nahiz eta hura zaintzeko hirugarren pertsona bati laga.
- Poliza horren ordainagiria.

Kontuan hartu beharreko oinarritzko baldintzak

- Lizentziak animalia bakarra gidatzeko aukera ematen dizu.
- Lizentzia duzula egiaztatzeko, TXARTEL bat aurkeztu behar duzu, animaliarekin ateratzen zarenean zurekin, derrigorrez, eraman beharrekoa..
- Durangoko Udalari jakinarazi behar diozu animaliaaren eskualdaketa, dohaintza, lapurreta, heriotza edo galera.
- Animalia babesten duen aseguru-poliza indarrean mantentzeko konpromisoa hartzen duzu, betiere hirugarrenei eragindako kalteen erantzukizun zibilaren estalduragatik, gutxienez 120.000 €.
- Beharrezkoa da eskatzailea Durangon erroldatuta egotea.
- Animalari amorraren aurkako txertoa jarri behar diozu urtero.
- Animalia leku eta espazio publikoetan gidatzeko eskubidea, 2 metro baino gutxiagoko uhal hedaezinarekin.
- Animalia leku eta espazio publikoetan gidatzeko eskubidea, animalia mota bakoitzarentzat egokia den muturrekoarekin.
- Lizentziaren indarraldia bost urtekoa da; epe hori igaro baino lehen, berritzeko izapideak hasi beharko dituzu.
- Animalia finka, landetxe, txalet, terraza- edo patio-partzela batean edo mugatutako beste edozein lekutan badago, lotuta egon beharko du, baldin eta leku horietara sartzen diren edo hurbiltzen diren pertsonak edo animaliak babesteko azalera, altuera eta itxitura egokiak dituen lekua ez badago.
- Lizentzian agertzen diren datuen edozein aldaketa Durangoko Udalari jakinarazi beharko dio titularrak, aldaketa gertatu eta 15 eguneko epean.
- Udal honi jakinarazi behar zaio lizentziaren titularra edozein unetan zigortzen bada arau-hauste larri edo oso larriengatik, abenduaren 23ko 50/1999 Legearen 13. artikulua 3. paragrafoan aurreikusitakoaren arabera.

Araudia

- 50/1999 Legea, abenduaren 23koa, Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzearen araubide juridikoari buruzkoa.
- 287/2002 Errege Dekretua, martxoaren 22koa, Arriskutsuak izan daitezkeen Animaliak edukitzearen Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatzen duena.
- 101/2004 Dekretua, ekainaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoa.